sólo cuando se detiene a pensar y curiosamente tiende a hacerlo cuando se encuentra con agobio o con un estado de ánimo algo decaído. El intento de justificación alegando que se encuentra en una sociedad consumista no explica que usted siga la corriente.

Predominio de C: *El consumo le cala hasta los huesos.* Le encanta gastar dinero, comprar, tener cosas, ceder antes los caprichos, ... Disfruta con ello. Uno de sus entretenimientos es salir a comprar y no entiende "salir de compras" por pasear por las tiendas. Usted compra todo y en cualquier sitio, a crédito o pidiendo prestado. ¿Cuántas tarjetas tiene? Alguna vez ha llegado a superar sus posibilidades y se ha visto en números más que rojos. Pero no desespere; no todos los de este grupo han llegado a esta situación, aunque están en camino de hacerlo. ●

En el centro sentado, el campanero de Alzola José Irusta Ulacla. A la derecha de pie, con pantalón corto, Paco Isasti Irusta en 1948 (foto cedida por la familia Isasti)



Campaneros (I)

AUNQUE HA EXISTIDO LA FIGURA DEL CAMPANERO "CIVIL", QUE DESEMPEÑABA SU OFICIO EN AYUNTAMIENTOS Y OTROS EDIFICIOS QUE CONTABAN CON CAMPANAS, TRADICIONALMENTE EL TOQUE DE CAMPANAS HA SIDO OBLIGACIÓN DE LOS SACRISTANES.

Carmelo Urdangarín • José M^a Izaga

En nuestro entorno, los sonidos obtenidos por el toque de campanas han servido tradicionalmente para transmitir todo tipo de información.

Según Antxon Aguirre Sorondo, que ha estudiado exhaustivamente el mundo de las campanas, éstas han sido utilizadas tanto para fines de carácter social como de carácter religioso. Entre los primeros se pueden señalar, la llamada a la población para acudir a determinados actos (los concejos entre otros), comunicar noticias como el inicio de las fiestas patronales (el repique de campanas) o transmitir alarma por un incendio o cualquier otro hecho similar. Entre los segundos cabe destacar el toque

para convocar a la población a actos litúrgicos o a la oración individual; para comenzar alguna actividad (las procesiones); para informar de la celebración de bautizos, funerales o de la administración de la extremaunción y viáticos a los enfermos; y también para informar de la muerte de algún vecino.

En ocasiones, se diferencia entre el campanero y el volteador o bandeador, entendiéndose que el primero es el que repica con cuerdas (lo más difícil) y el segundo es el que lo hace a brazo. Este oficio siempre ha tenido algo de singular, y ha sido descrito y reproducido por la literatura y el arte de distintas culturas. Como ocurre con otros oficios, los campaneros se han concentrado en calles y plazas.

Aunque ha existido la figura del campanero "civil", que desempeñaba su oficio en Ayuntamientos y otros edificios que contaban con campanas, tradicionalmente, el toque de campanas era obligación de los sacristanes. En nuestro entorno, son pocos los que quedan en activo y pocos también los que van a tener continuidad, puesto que los impersonales y fríos procedimientos eléctricos, aunque prácticos, van sustituyendo inexorablemente a todos nuestros campaneros.

Los sacristanes-campaneros de hace tres siglos

En las "Constituciones Synodales" (decisiones de los sínodos o concilios de

los obispos), del obispado de Calahorra y La Calzada de 1700, se definen con mucha precisión las obligaciones de los sacristanes y entre las mismas aparece "tocar las campanas cuando se tuvieran que tañer". Se establecía igualmente que: "Tendrán muy grande cuydado en tañer à las Ave Marias en las horas acostumbradas; y asimismo de hazer señal de doble por las animas. Los Domingos, y Fiestas de guardar, despues de medio dia, tañeràn la campana, para que vengan à oir la Doctrina Christiana; y que la noche antes del dia de ayuno se haga señal que eligieran como conveniente con la campana de la Iglesia, para acordar à todos el precepto."

También se encomendaba a los sacristanes campaneros funciones de custodia, al señalarles que: "de la torre y campanario tendrán mucho cuydado, no dexando que suban à ella muchachos; y quando alguna vez subieren, sea estando èl presente; y no permita que se repiquen las campanas con piedras, como suelen hazer, por aumentar el sonido, y con ellas las vienen a quebrar."

Hace tres siglos ya había problemas para que los sacristanes, y por lo tanto los campaneros, siguieran siendo clérigos, pues en muchas iglesias del Obispado de Calahorra y La Calzada, no había más que un sacerdote, sin nadie que le ayudara, por lo que se ordenaba que en todas hubiera sacristán, aunque fuera seglar: "Y en falta de Sacerdote, sea Diacono; y en su falta, Subdiacono; y no pudiendose aver, sea de menores Ordenes; y no aviendo Estudiante Ordenado, pueda ser Seglar de vida honesta, y buena fama; y qualquiera de los Ordenados sea preferido al Seglar, con el salario, y derechos acostumbrados. Y en caso que no se hallare Clerigo, y aya de ser Lego, se procure que sea soltero, y no casado."

Se estipulaba un fuerte control sobre todo lo que se les encomendaba, pues se establecía que: "Otro si, estatuímos, y ordenamos, que el tal Sacristan se ponga, y nombre por el Cura, y Beneficiados; el qual darà fianças llanas, y abonadas, que darà buena quenta de la plata,

Ornamentos, y de todos los bienes de la Iglesia, que se le entregaren; y quanto sea recebido, se le entregue todo lo dicho por inventario, por ante Escribano, firmado del Cura, y Mayordomo; y asimismo lo firme el dicho Sacristan."

Los campaneros

El trabajo de los campaneros, que salvo excepciones, acabó desempeñándose por seglares, tuvo una gran importancia en el pasado, no solo en la organización religiosa sino también en la civil.

Este oficio, que con frecuencia ha pasado de padres a hijos, se compaginaba con otra actividad. El aprendizaje se hacía por observación de los veteranos y la práctica de años, puesto que los ensayos no eran posibles. Sin embargo, no todos son capaces de dominar el oficio, que requiere "mucho oído" al tener que apreciar los sonidos y corregirlos acelerando o relantizando la velocidad del golpeo de las campanas. Se decía que los campaneros debían ser un poco músicos, aunque "de una sola cuerda" (la de manejar las campanas). Entre los que han ejercido esta actividad

numerosos agüistas, supuso un nuevo florecimiento, y durante la época de los baños se oficiaba misa diaria.

Paco Isasti empezó de monaguillo con seis años y se inició como campanero poco después, ayudando a su abuelo José Irusta Ulacia (1866), que se mantuvo en la actividad hasta los 70 años. No ha percibido retribución económica por su trabajo de sacristán-campanero, y se la ha permitido el uso de una vivienda contigua, propiedad de la Iglesia. Por su parte, el Ayuntamiento de Elgoibar le abona una módica cantidad por el mantenimiento del reloj. Lógicamente, conoce como nadie los toques habituales de la Iglesia de Alzola, utilizando algunas o las cuatro campanas (una a cada lado del campanario), y admite sentirse orgulloso de su labor.

Otro campanero es Laureano Tellería Ordozgoiti (1935), que vivía cerca de la iglesia de Segura, circunstancia que le permitió ayudar en la misa como monaguillo cuando contaba 10 años, y más tarde empezó a colaborar con el campanero Serafín Insausti que también era sacristán. En los veintidós años que lleva responsabilizándose del campanario y de sus 5 campanas, ha subido infinidad de veces los veinte escalones que separan la Iglesia del coro, más los ciento veintiséis de empinado caracol que conducen al campanario. Laureano también habla con satisfacción del oficio, que todavía hoy en día sigue ejerciendo, aunque con una actividad mucho más reducida que en el pasado, porque aunque se conservan los ritmos



El campanero de Segura Laureano Tellería Ordozgoiti (1935)

era conocido el dicho: "El Campanero nace, no se hace".

Un ejemplo de campanero en activo, es el de Paco Isasti Irusta (1929), en la iglesia de Alzola, barrio de Elgoibar, que cuenta con unos 200 vecinos, y donde se sigue oficiando misa diariamente. Este lugar tuvo notoriedad hasta hace cuatro siglos como puerto fluvial, donde llegaban por caminos de uña mercancías del interior para su expedición por Deba o, de éste para el recorrido inverso. A partir de 1846, la puesta en marcha del conocido balneario, donde acudían

tradicionales, se han mecanizado los toques.

Aunque la lista de los campaneros es amplia, debemos al azpetiano José Ignacio Alberdi Egaña la referencia a Pedro Foncueva (1669), Sebastián Quintana (1716) y Antonio Palacios (1775), citados por Imanol Elías Odriozola (en "Azpeitia Historiaren Zehar", publicado por el Ayuntamiento en 1997), así como a los sacristanes José Ignacio Abalia y Félix Epelde, que ejercieron desde principios del siglo XX hasta la década de los ochenta. 📖

ARGENTINAKO KRISIALDIAK ETA 2000AN ERRETAKO BILTEGIA KONPONTZEAK EMAITZA KONTUA 9.21 MILIOI EURO JAISTEA ERAGIN ZUEN IAZ, FAKTURAZIOA %3,13 HAZI BAZEN ERE.

Aurten 18 milioi euro irabaztea eta 887 fakturatzea espero du Fagorren etxetresna sailak

2001 urteak ekonomiaren esparruan izan zituen zailtasunek isla izan zuen Fagorreko etxetresna atalak izandako bilakaeran. Argentinako krisialdi sakonak eta 2000ko abenduan enpresak Gasteizen zuen biltegi nagusian jasotako sute eta deusezteak kostuen hazkundea eragin zuen. Urte "konplexua" izan zela uste du Pablo Mongelos Fagor Etxetresnak saileko zuzendariak, baina, hala eta guztiz ere, ez dela urte txarra izan adierazi du.

Arazoak arazo, fakturazioan hazkundea izan dela nabarmendu zuen Mongelosesk, 870,12 milioi euro lortu arte. Aurten ere %2 inguru haztea espero dute, 887,7 milioi euro erdiesteko. Mongelosek emaitzen berri eman zuen, Javier Gantxegi presidentearekin batera.

Etekinetan, ordea, arestian aipatutako bi faktoreak era irailaren 11ko atentatuen ondoren sortutako ezinegona kaltegarriak izan dira. Hala, 13,63 milioi euro irabazi zituen Fagorrek iaz, aurreko aurtean baino 9,21 milioi gutxiago.

Aurten etxetresnen merkatuan hazkunde adierazgarririk ez dute espero. Behin Gasteizko biltokiaren galera ekonomiko eta logistikoak gaingitu ondotik, etekinak 18 milioi euro izatea aurreikusi dute.

2002ko erronkak

- **Garagartza proiektua.** Arrasateko lantokiaren egokitzea amaitu da eta produkzioa nabarmen igoko da hemendik aurrera: 750.000 garbigailu, 350.000 ontzi-garbigailu, 450.000 labe eta 634.000 sukaldegaineko. Horri esker Brandtekin hitzartutako produkzioaren trukea, milioi bat unitate, gauzatu ahal izango da.
- **Gasteizko biltegia.** 72.422 metro koadro izango ditu 2000ko azaroan erre zen biltegia ordezkaturako duen eraikinak. Uztailerako osorik erabili ahal da.
- **Txinako lantegia.** Maiatzean inauguraturako da presio-lapikoak egiteko lantegia. Aurten 200.000 egingo dituzte, eta produkzioa bete-betean dagoenean milioi bat izango dira.
- **Brandt Frantzia.** Zazpi lantoki eta zortzi marka kudeatuko ditu Fagorrek FrantziaN. Elcorekin batera Brandt enpresa erosteko ardura hartu ondotik.


Fagorreko etxetresna atala 2001-2004 plan estrategikoan sakontzen ari da. Besteak beste, epe horretan 210 milioi euro inbertitzea zehaztu zuen planak. Joan den urtean, 74 milioi euro erabili ziren: 18 biltegia eraikitzeke, 13 produktua garatzeko, 12,5 ontzi-garbigailuen lantokia egokitzeko eta 9,7 Garagartza proiekturako. 2002 urtean, berriz, 27 milioi euro inbertituko dituzte: 4,4 produktua garatzeko, 2,4 ontzi-garbigailuak egokitzeko, 3,2 Garagartza proiekturako eta 2,3 e-business arloa sendotzeko, besteak beste.

Europako sei etxetresna enpresa nagusien artean

Baina benetako erronka nazioartean egindako jauzia da. Dagoeneko fakturazio osoaren %43,9 dira atzerrian eginiko salmentak, eta 2004an erdia izateko helburua du Fagorrek.

Elcorekin batera Frantziako Brandt enpresa erosi izana Fagorrentzat jauzi kualitatiboa da. Izan ere, zazpi lantegi eta zortzi marka kudeatzeko aukera eskainiko dio Arrasateko konpainiari. Pablo Mongelos zuzendariak azpimarratu zuenez, Europako seigarren etxetresna enpresa nagusia da.


Brandtek eta Fagorrek iragan urtean izan zuten fakturazioa batzen bada, 1.727,62 milioi euro dira.



Armentia: un pueblo, un santuario, un santo y una romería

LA ROMERÍA DE SAN PRUDENCIO SE CONVIERTE EN UN EVENTO POPULAR DE RECUERDO AL PATRÓN DE LOS ALAVES.

Eukeni Olabarrieta



En la segunda mitad del siglo XII, Don Rodrigo Cascante, obispo de Calahorra, mandó construir la Iglesia de San Andrés, hoy San Prudencio, un edificio muy singular por no responder al modelo habitual de la arquitectura románica de la época por su distribución, dimensiones, estatuaría y ornamentación. La visita a esta iglesia es obligada.

Romería de San Prudencio

Aquí en Armentia, nació el patrón de Alava, San Prudencio, que fue eremita en Soria, conversor de paganos en Calahorra y obispo en Tarazona. En 1643 las Juntas Generales de Alava le nombraron patrón de la provincia y en honor de San Prudencio cada 28 de abril se celebra en las campos de Armentia una populosa romería que congrega a miles de alaveses.

La fiesta comienza la víspera con un toque de retreta desde los balcones del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, y una hora después, desde la Diputación cada quince minutos; es la señal de partida de las diversas tamborradas que llenan de color y sonido las calles de Vitoria-Gasteiz.

Desde la alborada del día 28 los músicos, a los sonos de un alegre *zortziko*, animan a la población a dirigirse al Santuario de Armentia, que en cuadrillas o en familia se desplazan a las campos.

Osculo a la reliquia del santo, misa, *urrezku* y almuerzo a base de revuelto de *perretxikos* o caracoles con salsa de tomate, jamón, tocino y setas, constituyen el meollo de esta bonita romería.

Si quiere hacer algo de ejercicio es recomendable ir a Armentia partiendo de la Plaza de la Virgen Blanca o desde el parque de La Florida; por el paseo de la Senda, un paseo de tres kilómetros muy gratificante.

Desde el mismo santuario de Armentia parte un camino, que nos adentra en el Bosque de Armentia de elevada riqueza natural y que se puede recorrer a lo largo de un plácido itinerario. Y si lo que le gusta es pedalear fuerte porque el cuerpo le pide más, aquí tiene una buena ocasión de hacer un circuito de 16 kilómetros, que empieza y termina en el santuario, de dificultad media y que nos lleva por el monte Zaldiaran, un sendero de gran recorrido (GR25) y otros puntos interesantes. ●

Armentia, a los pies del pico Mendizorrotz, actualmente engullida por la expansión urbanística de Vitoria-Gasteiz, es escenario el 28 de abril de la fiesta de San Prudencio, patrón de Alava.

Armentia es una pequeña y antiquísima localidad que aparece ya en el catálogo de San Millán y otros documentos del siglo X. Probablemente su origen se remonta a los siglos III-IV, siendo entonces asentamiento romano en la ruta Astorga-Burdeos. En sus alrededores hay numerosos vestigios de la época romana.

El hecho de mayor trascendencia en su historia es la implantación de una sede episcopal, posiblemente como consecuencia de la ocupación árabe de Calahorra, cuya diócesis

se trasladó a esta localidad situada a 4 kilómetros de Vitoria-Gasteiz. En el año 1088 se suprime el obispado que es nuevamente devuelto a Calahorra, al ser esta localidad reconquistada.



En 1643 las Juntas Generales de Alava nombraron a San Prudencio patrón de la provincia y en su honor cada 28 de abril se celebra en las campos de Armentia una populosa romería que congrega a miles de alaveses.



Kike Amonarriz

ROSA MONDRAGÓN

**TXISTE KONTALARI, TELEBISTAKO
GIZONA, SOZIOLINGUISTIKA
IKERTZAILE, ... ETA GAUR EGUN ARGIA
ALDIZKARIAN SUSTAPEN ARLOAN ARI
DA LANEAN KIKE.**

Garaiko sistemak agintzen zuen bezala, umetan erdarazko heziketa jaso zuen Kikek, eta Gipuzkoako Tolosa herrian jaio eta bizi arren, euskaraz hitz egiteko zailtasunak zituen. Hamaiaka urte besterik ez zuela Nafarroako Abaigar herriko udal udalekuetan deskubritu zuen euskararekiko grina berezia.

Euskal Mundu bat zegoela deskubritu omen zenuen, Kike.

Bai, eta horrek asko markatu nau. Horren haritik, hamasei urterekin euskaraz alfabetatzen hasi nintzen, eta gero, Gau Eskolan irakasle.

Ondoren, euskal filologia ikasten ari nintzela, Susa aldizkaria sortzeko prozesuan parte hartzeko aukera izan nuen eta orduantxe luzatu zidaten Zeruko Argia aldizkarian zerbait idazteko proposamena ere. Horrela hasi nintzen txistek idazten. Bitartean, 80ko hamarkada hasieran Tolosa berreuskalduntzeko elkartearen buru belarri sartu nintzen, eta udaleko euskara teknikari plaza atera nuen. Euskara elkartearen gauza berriak egiteko ideiak aztertzen hasi ginen eta lehendabiziko txiste afaria antolatu genuen. Egia esan, horrek ireki dizkit ondoren umorearekin lotuta egin ditudan lan askoren ateak: txiste kontalari herriz-herri, telebistako programetako aurkezle, aktore, eta abar.

Soziolinguistika eta umorea konpaginatu dituzu, beraz.

Bai, nire bizitza beti mugitu izan da euskalgintza eta umorearen inguruan eta oso modu naturalean bizi izan dut binomio hori. Mundu honetan denak duela denarekin zerikusia iruditzen zait eta, nire kasuan, batak bestea oso ondo konplementatzen eta aberasten duela. Begira, Siadecon hamar urtetan soziolinguistikarekin lotutako hainbat lan egin dut eta bitartean Zeruko Argian txistek idazten nituen.

Gainera, Zeruko Argia aldizkariarekin kolaborazioa gaur egunerarte luzatu da eta gaur ere jarraitzen dut txistek idazten.

Eta orain, zer duzu esku artean?

Pasa den uda aldera profesionalki izandako aldaketa batzuek medio, Argia aldizkarian sustapen arloan lan egitea proposatu zidaten eta irailetik hemen ari naiz.

Lanetik aparte jarraitzen dut umorearekin eta euskalgintzarekin lotutako hainbat gauza egiten. Esate baterako, "euskaraz dibertitzeko manierak" delako hitzaldiak ematen ditut han hemenka Antxon Olariaga eta Frantzisko Urmenetarekin, hizkuntzarekin nola jokatu erakutsiz. Horretaz gain, XXI. mendeko euskarak zer nolakoa behar duenaren inguruko materiala ere biltzen ari naiz, elementu hauen inguruan hausnarketa bat proposatuz: gaurko euskararen errejistro tipoa, gazte hizkera, teknologia berriak hizkuntzan duen eragina, eta abar.

"Euskararen alde ausart

Eta nola hitz egiten dute gazte euskaldunek, bada?

Honen inguruan bi jarrera kontrajarri daude: desastre hutsa dela pentsatzea, edo orain dela hogeituro urteko egoerarekin konparaketa egitea, hau da, gazteak orain dela hogeituro urte erdaraz erlazionatzen zirela pentsatzea eta gaur egun euskara erabiltzen dutela, nahiz eta hutsune batzuekin.

Gainera, beste fenomeno berri bat ematen ari da gaur egun. Orain arte ahozko hizketa eta idatzizkoa desberdintzen genituen soilik, baina gaur egun teknologia berriek sortu eta erabiltzen duten hizkera ez da ez bata ez beste. Beraz, hainbat eta hainbat eragin jasaten dituzte gaurko gazteak: etxean ikasten duten euskara, ikastetxean ikasten duten euskara, komunikabideetan entzun eta ikasten dutena, eta ondorioz, inguruaren eraginez bereak erabiltzen dutena.

Urteekin, gune euskaldunetan gazteak euskaraz hitz egiten dutela ikusi da, aurretik ematen zen tendentzia aldatuz. Bestalde, hutsuneen aurrean (erderakadak, eta abar) beharbada ez ginateke hainbeste larritu behar, maila batean belaunaldien arteko borrokaren parte izan baitaiteke. Hala ere, garrantzitsuen oinarria finkatzea da, hau da, gazte hizkera berria erabili arren hizkuntza mailarik onena eta euskara aberatsa izan dezaten ahalegindu behar gara.

Orokorrean, nola definituko zenuke euskararen gaurko egoera?

Nire ustez hainbat esparrutan aurrera egin dugu, baina era berean gehiago egin genezakela iruditzen zait. Gainera, ziur nago euskararen egoera gaur egun duguna izango dela beti. Hau da, globalizazioaren ondorioz, hizkuntza desberdinen eragina aurrerantzean ere oraingoa bestekoa edo nabariagoa izango da, eta horregatik saiatu beharko gara euskararen alde egiten alde guztietatik.

Une honetan "impas" egoera batean gaude, aurretik lan asko egin den arren, Autonomia Erkidegoan (Nafarroa eta Iparraldeko egoerak guztiz larriak baitira) pausu berri bat eman beharrean gaudelako, ausartagoak izan behar gara. Bestalde, egoera politikoak ez du bat ere laguntzen euskarak aurrera egin dezan eta ahalbide asko oztopatuta aurkitzen gara hainbat esparrutan.

Horretaz gain, euskal komunitatean lanean ari garenek gauzak aldatu direla somatu dugu, eta aurrerapausu ausarta eman behar dugula. Euskaren aldeko mugimendua erabat profesionalizatu egin da, eta horrek ere emaitza ausartak eskatzen ditu. Joku arau berriak martxan jartzeko momentua heldu zaigu, egitura aldatzea bat somatzen dut.

Gaia aldatuz, umore beltza eta umore horia baldin badaude, existitzen al da euskal umorea?

Euskal umoreak daude, Euskal Herriko umoreak. Iparraldeko eta Hegoaldeko umorea, esate baterako, ez dira berdinak, lehenak eragina zuzena izan duelako Frantziako umoretik, eta bigarrenak Espainiakotik. Kostaldeko eta barrualdeko umorea

"Nire bizitza beti mugitu izan da euskalgintza eta umorearen inguruan eta oso modu naturalean bizi izan dut binomio hori"

ere ez dira berdinak. Bestalde, Erriberako umoreaz hitz egiten da, hizkera aldetik eta gai aldetik berezitasun propioak dituelako.

Tradizionalki umorea oso lotuta egon da jardun batzuekin eta egon litezke euskal idiosinkrasia eta euskal klimatologiarekin loturiko elementu batzuk. Baina, bestalde, umorea unibertsa da eta hemen gertatzen diren istorioak Kuban, Ingalaterran eta abarretan aurkitzen ditugula, eta hangoan hemen ere bai.

Euskaldunok ez dugu umoretsu izatearen fama handirik, ezta?

Beno, hori historikoki kanpotik ezarri diguten "klitxe" bat da, eta beti pentsatu izan dut hori jarri digutenek ez zutela euskara ulertzen eta erdaraz ez zekien euskalduna ezagutu dutela. Zentzu horretan, euskaldunak indioak bezala izan gara, kanpotik isilik eta irribarrez ezagutu gaituztelako, baina erdara ezagutzen ez gurela pentsatu gabe.

Aurrera begira, baduzu proiekturik?


Momentu honetan, Argian nago buru belarri sartuta eta badaude bestelako proiektu batzuk ere, baina aurrera ateratzen badira ezagutuko dituzue.

Zer duzu gustuko denbora librean?

Gelditzen zaidan denbora familia eta lagunei eskaintzen diet. Iluntzetan eta asteburuetan irakurtzeko ere aprobetxatzen dut. ●

"Euskararen gaurko egoera aztertuz, joku arau berriak martxan jartzeko momentua heldu zaigula iruditzen zait; egitura aldatzea bat somatzen dut."

agoak izan behar gara"



Arizmendi Topaketak 2001

Gizabidea Fundazioa

On Jose Maria Arizmendiarietaren heriotzako XXV. urteurrena zela eta ekitaldi ugari antolatu zen. Argitalpen xume honek "Arizmendiarieta bere kolaboratzaileen ikuspuntutik" izeneko ekitaldian Alfonso Gorroñoioitiak, Jesus Larrañagak eta Jose M^o Ormaetxeak eskainitako ikuspuntuak ezagutzera ematen dira.

Gorroñoioitiak bere dimentsio erlijiosoaz aztertu zuen; Larrañagak berriz kaleko gizonaren ezaugarriak miatu zituen; eta Ormaetxeak enpresa gizonaren arloa ikutu zuen.

Juan Mari Otaegi MCCko Kongresuko presidentek egin zituen moderatzaile lanak ekitaldian; bertan esandako hitzak jasotzen ditu argitalpenak eta baita ere "XV. Jose Maria Arizmendiarieta literatur lehiaketako epaimahaiaren erabakia.



Oficios tradicionales VI

C. Urdangarin / José M^o Izaga

Nueva entrega de esta colección que edita la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre oficios antiguos. Se trata de una recopilación de las formas de vida y trabajo del pasado que suponen una contribución extraordinaria para entender la cultura del trabajo de nuestras gentes.

En esta publicación se presentan un total de 14 oficios clasificados en torno a actividades industriales, oficios de la minería, oficios urbanos y oficios rurales. Al igual que en ediciones anteriores, cabe destacar las fotografías e ilustraciones que complementan a los textos de cada oficio.

Una versión más reducida del contenido de cada uno de estos oficios ya ha sido publicada con anterioridad en la sección Antzinakoak de nuestra revista, pero en este libro se recogen con más amplitud y detalle todas las actividades objeto de estudio por los dos autores.



Cómo generar ideas para generar beneficios

Simon Majaro

Hace falta creatividad para desarrollar productos, para producirlos, para venderlos, para bajar costos, para aumentar la rentabilidad y, en definitiva, para cada uno de los factores claves de éxito. Una empresa competitiva debe evitar que la creatividad sea producto del azar. La creatividad en la empresa debe ser producto de la acción consciente y encaminada a su logro. Este libro constituye una obra clara y práctica para el desarrollo sistemático de las posibilidades innovativas de las organizaciones.

Nola ikusten gaituzten

GURE ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA EZAGUTZERA ETORRI ZIREN MUNDUKIDEKO TRUKE PROGRAMAKO LAGUNEK BEREN HAUSNARKETAK UTZI DIZKIGUTE.

MUNDUKIDE



Truke programako bisitariak

Gre artean hilabetez egon ondoren, aurtengo Mundukideko Truke Programako kideak euren herrialdeetara bueltatu dira. Joan aurretik, ordea, urtero egin ohi den bezala, ebaluazio orokor bat egin zuten. Hona hemen ebaluazio horren zenbait aipamen.

Esperientzia positiboa

Orokorrean, zituzten espektatiba eta helburuak beteta ei doaz. Oso esperientzia positiboa izan da eurentzat Arrasateko Kooperatiben Esperientzia ezagutzea, nahiz eta beraien herrialdeetako egoera eta hemengoa oso ezberdina izan, eta beraz, helburua esperientzia hau kopiatzea ez den arren, baizik eta gauza edo ideia konkretu batzuk hartu, eraldatu eta beraien komunitateetan aplikatzea.

Gehienak kooperatiba edo herri ekonomietako partaide dira, baina halere nahiko harrিতa azaldu dira hemengo kooperatibismoa ikusi dutenean: "Hemen ikusi dut aberastasuna nola sortu eta banatu den, eta ondorioz, biztanleen bizimaila nola igo den; kooperatibismo modelo egokia dela uste du" aipatu zuen Carlosek (Kolonbia).

Arlo ezberdinetan lan egiten duten kooperatibak bisitatu zituzten: nekazaritza kooperatibak, hezkuntza kooperatibak, industria arloko kooperatibak... Manuel (Ekuatore Gineakoa) eta Juan (Kolonbiakoa) bat datoz ideia batean: "benetan harrিতa geratu gara industria-kooperatiba batzuk ikustean; halere, gu nekazaritza mundutik gatoz eta uste dugu gehiago sakondu beharko litzatekeela aspektu hori".

Baloreak

Kooperatibetatik asko interesatzen zitzairen esperientzia hau sortu zeneko pausoak zeintzuk eta nola eman ziren ezagutzea; horregatik, Alfonso Gorroñagoitiarekin egoteko parada izan zuten. Angeliak (Mexikokoak) honela zioen: "Garrantzitsua iruditzen zait ezagutzea errekurso eta jende gaitu gutxi zegoen momentu batean, nola pertsona batek -Arizmendiarretak- herri oso bat martxan jarri zuen". Horren haritik, Gladisek (Paraguay) hauxe azpimarratu zuen: "Iruditu zait hasierako balore kooperatiboak apur bat galdu egin direla eta, beraz, beharrezkoa litzateke ikastoletan, unibertsitatean eta lantokian bertan balore horiek gehiago lantzea. Azken batean, langileek balore horiek bere egiten ez badituzte, kooperatibismoa galdu egingo da".

Angelesek (Mexiko) ere hainbat ideia azaldu zituen kooperatibismoaren

inguruan: "Uste dut Arrasateko kooperatiben gestazio prozesua ulertu dugula, baina guk ere asko dugu erakusteko eta kasik izan dugu aukerarik. Guk ere badugu *know-how* propioa, baina uste dut ez dela oso garbi geratu".

Halere, hainbat gauza ikasi omen dituzte, Sandra eta Iris (Txile) ados zeuden ideia honetan: "Zerbait kopiatu beharko balitz, hemen dagoen kudeatzeko gaitasuna kopiatuko genuke; horregatik, Mundukiderekin harremanetan jarraituko dugu, beraien aholkularitzarekin pauso asko eman baikenezake".

Pedro eta Valmir (Brasil), MST-ko kideek honela baloratu zuten: oso interesgarria izan da Kooperatibak ezagutzea, baina baita ere Euskal Herria bera eta duen problematika ezagutzea. Halere, gehiago sakondu nahi genuke hemengo organizazio sozialekin.


Pedrok (Ekuatore Gineakoak) asko ikasi omen du; "Kooperatiba hauetan partizipazio maila oso altua da, eta uste dut klabea dela aurrera egiteko". Ildo horretatik, Justinok (Mexiko) zera aipatu zuen: "Truke Programa bi norabidetako elkartruke gisa planteatu da, Arrasateko kooperatibak eta Hegoaldeko esperientziak. Agian truke multidirekzional bezala bultzatzea beharko litzateke".

Beraz, hasierara bueltatuz, esperientzia oso positibotzat jo zuten guztiek, nahiz eta hobetzeko puntu asko izan. Agian, Richardek (Zimbabwe) esan zuenak ongi laburtzen du aurtengo Truke Programa: "Esperientziak ez dira kopiatzeko, ikasi, interpretatu eta testuinguru berrietara egokitzeko baizik. Arrasateko Esperientzia kooperatiboa etsenplutzat balio duen modelo bat da". ●

Rochman

Jubilazioari buruz

- KOKAPENA: OTXANDIO (BIZKAIA)
- ELKARKETA: SISTEMA ETA ZERBITZUEN ELKARKETA (ERAIKUNTZA TALDEA)
- EGITEKOA: MEATZETARAKO GARRAIO ELEMENTUAK, MANTENUA, ONTZIRATZE ETA ENBALAJERAKO MAKINARIA.
- LANGILEGOA: 145 PERTSONA.
- 2001EKO FAKTURAZIOA: 17 MILIOI EURO



Marino Urigoitia Muentajeko langilea

Jubilatzeko garaia

Jubilazioaz hitz egiten hasi baino lehen, zehazki noiz jubilatuko naizen jakitea gustatuko litzaidake. Uste dut 1967 aurretik kotizatu ez dugunoi, 65 urte bete arte lanean jarraitzea tokatzen zaigula, eta aurretik jubilatuz gero, dirua galtzen irtengo garela. Hamalau urterekin hasi nintzen lanean eta hainbeste urtez aritu ondoren, ez dut uste dirua galtzea merezi dugunik. Jadanik laster 42 urte beteko ditut Rochmanen; beteranoena naiz.

Osasunak lagunduz gero

Jubilatzen naizenean osasunak laguntzen badit, ez dut aspertzeko astirik izango. Otxandiokoa naiz eta paraje honetan beti dago zer egina: pasiatu, baratzean lan apur bat egin, eta abar. Egia esan, hiri handietan edo herri txikietan bizi direnek, jubilazioa oso modu desberdinean bizi dutela uste dut.



Luis Mari Garate Biltegiko langilea

Informazio eza

Uste dut 62 urterekin jubilatuko naizela, bost urte barru, baina eskertuko nuke honen inguruko informazio gehiago, azkenaldi honetan ezer gutxi azaldu digute eta. Gainera, 20 bat lagun gaude antzerko egoeran Rochmanen eta denok dugu informazio zehatza jasotzeko gogo. Nik pertsonalki eskatu dut behin baino gehiagotan baina momentuz ez didate ezer argitu. Beharbada, denok elkartu eta kolektibo bezala eskatuko beharko genuke bileratxo bat.

Loturak eten

Ez dut uste jubilatuta ondoren erlazio gehiegirik izango dugunik Rochmanekin. Gure aurretik jubilatuta dira beste batzuk eta apenas dute enpresarekin harremanik. Kanean elkartzen garenean, gaia ateratzen badugu beti galdetzen dute zer bait, baina hortik aparte gauza gutxi. Beraz, gurekin ere antzerako gauza gertatuko dela uste dut.



Luis Mari Garmendia Minerriako enkargatua

Zalantza asko

Kooperatiba bakoitzak jubilazioaren inguruko sistema propioa duenez, ez dakigu Rochmaneko sistemak gorabeherarik izan duen legeak jasandako azken aldaketak direla eta. Hainbeste gauza entzun ditugu: "Pacto de Toledo" delakoa, 67 aurretik kotizatu beharra, eta abar. Oraindik sei urte falta zaizkit 62 urte betetzeko, baina jadanik jubilazioa prestatzen ari naiz, beste lankide askok bezala pentsioa hobetzeko hileroko diru kopuru bat emanaz. Horretaz gain, Kontseilu Soziala jubilazioaren

inguruko kontuetan ari dela uste dut, eta beharbada momentu egokia izango da gure artean ditugun kezka guztiak argitzeko.

Bihar baino, hobe gaur

Jubilatzeari beldurra diotenak ez ditut ulertzen. Nire kasuan, irrikitan nago eta bihar baino, gaur jubilatzen banaiz hobe. Desiatzen nago erlojuari begiratu gabe bizitzeko, egunez egun sortzen denari erantzunez.

Ebentuala

Poan zen hilean txoko honetan idatzi zen gaiari helduz, hona hemen ekarpen bat, ebentual edo aldi baterako en egoera konparatuz kooperatiba eta elkarte anonimoetan.

Batean eta bestean **malgutasun faktorea** da aldi baterako langilea. Egoera kaskartzen denean (irabaziak behera egiten hasten direnean, nahiz eta enpresak dirua irabazten jarraitu) aldi baterako langileak kanporatzen dituzte. Baina kooperatibetan kontraesana nabarmena da, elkarte anonimoetan ez bezala, elkartasun baloreak aldarrikatzen baitira. Egon badaude mekanismo batzuk krisi garaia jasateko, lanaldi murriztua adibidez: lan ordu gutxiago egin eta diru gutxiago kobratu. Eta mekanismo hau aplikatzen dute, baina behin aldi baterako "koltxoia" agortu denean.

Aldi baterako langileen **soldata** eta **lan egoera**, kooperatiba zein elkarte anonimoetan, bazkide edo langile finkoena baino txarragoak dira. Lan baldintzei dagokienean, lanpostu, ordutegi eta egutegi eskasak norbaiti egokitu behar badira hor daude aldi baterakoak.

Kooperatibetan beste arrazoi bat ere badago aldi baterakoak beren horretan mantentzeko: **irabazien banaketa**. Elkarte anonimoetan ez bezala, irabaziak izanez gero, guztiek, bazkide eta aldi baterakoek, jasotzen dute irabazien zati bat (galerak badira aldi baterakoek ez dute dirurik jarri behar, baina aurreko puntutik ateratzen denez, egoera horretara iritsi aurretik "desagertuko" dira enpresatik). Baina bazkideak 100 jasotzen badu aldi baterakoak gutxienez 25, nahiz eta alboan duen bazkidearen lan berdina egin. Maila hori legeak finkatzen du, eta eskerrak, zeren eta badaude kooperatiba batzuk minimo hori ere betetzen ez dutenak. Beraz, zenbat eta bazkide gutxiago egin edota zenbat eta denbora gehiago izan aldi baterakoak egoera horretan, gutxiagoren artean banatu behar dira irabaziak.

Kooperatibetan, **egunerokotasunean** ere agerian geratzen da aldi baterakoa bigarren mailako langilea dela:

- Beren inguruan, bazkideek kobratu beharreko kapitalaren interesa edota retribuzio aldakorrari buruzko komentarioak entzuten dituzte: kopurua, etab.
- Bazkideek mediku espezialistaren txanda eskatu (Lagun-Aron) eta handik bi egunerako lortzen badute, aldi baterakoek (Segurtasun Sozialean) handik bi hilerako.
- Bazkideei bidaltzen zaizkien komunikazio asko, nahiz eta aldi baterakoei ere afektatu, ez zaizkie iristen azken hauei. Asanblada Orokorretara entzule gisa joan ahal badira (kooperatiba guztietan ez daude ateak zabalik), "gonbidatua" txartelarekin sartuko dira, eta ez "aldi baterakoa" txartelarekin. Gainera, kooperatiba batzuetan hitzaldi informatiboetatik ere kanpo daude.

Azkenik, *but not least*, lanarekin erlazionatutako gaietaz jarduteko eta arazoak tratatzeko, kooperatibetako aldi baterakoek ez daukate nork **atenditu eta defendatu**.

Laburbilduz, malgutasun faktorea izatea eta soldata baxuagoa eta lan egoera kaskarragoa izatea, aldi baterako en ezaugarri dira elkarte anonimoetan eta kooperatibetan. Irabazien banaketari dagokionez kooperatibak erakargarriagoak dira, oraindik alde handia eramaten baitiete elkarte anonimoiei. Baina aipatutako egunerokotasunak eta nork atenditu ez izateak deserosoagoa egiten dute kooperatibetan aldi baterakoa izatea. Azken batean, ebentuala izateak autoestiman eragina badu, eragin hori handiagoa da kooperatibetan.

A.E.O.

FE DE ERRATAS

- El pasado mes, en la noticia sobre el acto de entrega de la Q de Oro a Caja Laboral, cometimos el error de afirmar que Pureza Aranzabal (presente en el acto) era la viuda de José M^a Usatorre, cuando en realidad Pureza es la viuda de Luis Usatorre, cofundador de la Experiencia Cooperativa. Nuestra disculpa más sentida a Pureza por esta equivocación.
- Asimismo, en el artículo sobre "El destino de los fondos intercooperativos" los duendes de las artes gráficas nos jugaron una mala pasada ya que hicieron desaparecer la

grafía del euro, sustituyéndola por un espacio en blanco. El resultado de esta jugarreta fue que todas las cifras que se daban (que eran bastantes) no expresaban la moneda a la que hacían referencia, que por supuesto, era el euro.

- Azkenik, pertsonaia atalean ere hansartzea izan genuen. Arantza Kortabarrriak azken 18 urteotan Fagor Arrasateko telefonista lanetan ibili dela esaten genuen. Eta adierazpen hori ez da zuzena. 18 urte bete zuenetik hona aritu dela lan horretan esan nahi genuen.

Seguru gure kooperatiben inguruan gauza asko daukazula esateko. Hemen daukazu horretarako aukera. Esan ba! Zure karta bidaliguzu, zure izena eta kooperatibarena azalduz (ez dugu argitaratuko izengabeko kartak).

Seguro que tienes mucho que decir sobre temas relacionados con nuestras cooperativas. Esta página esta concebida para eso. Para que lo digas. Envíanos tu carta indicando tu nombre y el de tu cooperativa (no publicaremos cartas anónimas).

T.U. LANKIDE, AOZARAZA Z/G, ARETXABAETA 20550 GIPUZKOA



Hamaika jatatxetan aritutakoa da eta nazioarteko sukaldaritza ezagutzeko makina bat ikastaro egin du. Orain Otorako sukaldean ari da.

“Beti ikasten eta oraindik ere ezjakin”

PERTSONAIA

Aitor Aizpurua

Otorako sukaldaria (Auzo Laguneko bazkidea)

Euskaraz ala gaztelaniaz?

Euskaraz nahiago, erdararako joera izan arren.

Konta iezadazu zerbait zure ibilbide profesionalari buruz.

BBB eta UBI egin ondoren, Lanbide Heziketako ostalaritza ikasketak egin nituen Donostian. Ikasle ona nintzela eta, amak ingeniarietza egiteko esaten zidan, baina adin horretan, 18 urteren bueltan, amak esaten duenak ez du balore handirik izaten.

Eta zer moduz joan zitaizun ostalaritzan?

Ondo. Praktiketara ibili nintzen ikasketak egiten nituen bitartean: lehen urtean La Manga del Mar Menorrera joan nintzen, hurrengoan Eivissara, eta azkenik Mutrikun.

Oporretan?

Oporretan zeudenei jatekoa prestatzen.

Ikasketak bukatzean?

Berriz Eivissara joan nintzen, gero Bakeirara, Miarrizteko gaztelu batera ondoren, Madrilerara, Bartzelonara, eta Frantziako Landetara. A! Eta gero beste urtebete Suitzara. Horretaz gain, sukaldaritzako nazioarteko hogeita piku ikastaro egin ditut, nire teknika hobetzeko. Beti ikasten eta oraindik ere ezjakin.

Sukaldariok lana erraz topatzen duzuela esaten da?

Lan asko dago, baina inork ez du asteburuetan lan egin nahi.

Eta orain zertan zabilta?

Auzo Laguneko bazkidea naiz eta Otoran ari naiz sukaldari lanetan.

Bazkari asko ematen duzu?

Egun batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, baina hilean 1.000 inguru.

Zer jaten da gehien?

Entsaladak eta arraina. Jendea lanera etortzen da Otorara, ikastera, eta bazkariak nahiko arinak egin behar ditu, bestela...

Munduan zehar ikasitakoa nola praktikatzen duzu, orduan?

Bazkari bereziak ere egiten ditugu, beti izaten delako talde bereziren bat. Eta halakoetan aukera handiagoa izaten da sormenerako.

Zure jatatxea ere izan zenuen.

Bai, bai. Michelin gidan gomendatua, gainera.

Zergatik utzi zenuen, bada?

Bederatzi urte egin nituen bertan, astebururo hantxe, bizimodu xeblebre antzean; eta nahikoa zela pentsatu nuen. Orain gehiago gozaten dut bizitza.

Subijana, Arzak ala Argiñano?

Subijanarenean praktikak egiten ibili nintzen. Argiñano enpresari aparta da, baina sukaldari moduan Arzakek dauka sonarik handiena. Atzo bertan irakurri nuen Michael Douglas aktoreari gehien gustatzen zaion sukaldaria Arzak dela. Eta hori hamaika lekutan janda egongo da!

"Fast food" hitzek zerbait esaten dizute?

Ez dut oso gustuko, baina zoritxarrez tiroak hortik datoz, bai. Andrea eta gizona lanean ibiliz gero, sukaldean zein arituko da, bada? Hainbat etxetan ez dakite babarrunak egitea zer den.

Tiroak aipatu duzula, bestelako tiroak jotzen dituzu?

Ehizan ibiltzen naiz. Asko gustatzen zait. Aurten txakurdun ehiza xehean garaile izan naiz Debagoienean.

Ehiza kirola da?

Niretzat bai. Joaten naizen bakoitzean izugarriko ibilaldiak egiten ditut eta.

Etxean ere sukaldari?

Normalean bai.

Dietarik onena?

Barazkiak, arraina eta fruta. Ahal dela, bakoitza bere jatorria errespetatuz.